

KONTSULTA PUBLIKORAKO TXOSTENA, ALDATU AURRETIK 26E/2017 FORU AGINDUA, EKAINAREN 16KOA, GARAPEN EKONOMIKORAKO KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ EZARTZEN BAITA SINDIKATUEI BEREN JARDUERA ARRUNTAK GAUZATZEKO EMATEN ZAIEN DIRULAGUNTZAREN ARAUBIDEA NAFARROAN LORTUTAKO ORDEZKARI KOPURUAREN ARABERA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuen eta erakunde nabarmenen iritzia jakiteko. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauak zer helburu dituen.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen helburua da indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua aitutzen dituen gaiei konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere honako arau hau aldatu aurreko kontsulta publikorako: 26E/2017 Foru Agindua, ekainaren 16koa, Garapen Ekonomikorako kontseilariak emana, zeinaren bidez ezartzen baita sindikatuei beren jarduera arruntak gauzatzeko ematen zaien dirulaguntzaren araubidea Nafarroan lortutako ordezkari kopuruaren arabera. Hori

guztia, arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Gero eta kezka handiagoz begiratzen zaie nafar langileen lan osasunari eta lan baldintzei (Nafarroako Lan Osasuneko 2017-2020 Ekintza Planean jaso zen kezka hori) eta, bestetik, gora ari da laneko ezbeharren tasa bai nafar enpresetan, bai Estatuaren gainerakoan. Bi faktore horiek esku-hartze irmoa eskatzen dute, baita laneko arriskuen prebentzioko politiken bultzada ere.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

Ekainaren 16ko 26E/2017 Foru Aginduak, Garapen Ekonomikorako kontseilariak emanikoak, sindikatuei beren jarduera arruntak gauzatzeko ematen zaien dirulaguntzaren araubidea ezartzen du Nafarroan lortutako ordezkari kopuruaren arabera. 1. artikuluan honela dio: “Dirulaguntzaren helburua da sindikatuen berezko interes sozialak sustatzen eta, bereziki, enpresetako langileen eta Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen lan-baldintzak hobetzen laguntzea”.

Aipatu arazo horiek direla-eta, langileen osasunari inondik ere eragiten dioten arazoak izaki, komenigarria da bereziki aitortzea hala gizarte eragileek duten eginkizuna, nola sindikatu nagusiek ekiteko duten gaitasuna enpresetara iristeko eta lan egiteko bai laneko arriskuen identifikazioa hobetzen, bai langileei berariazko aholkuak ematen.

Laneko arriskuen prebentzioan eragile ugari dute zer egina. Batetik, enpresaburua dago, bere zerbitzuko langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko obligazioa duena lanari dagozkion alderdi guztietan, eta, hortaz, laneko arriskuen

ebaluazio zuzena egin beharra duena. Bestetik, langileen eta haien ordezkariak daude, eskubidea dutenak nork bere lanean dituen arriskuei buruzko informazioa jasotzeko, baita segurtasun-arauak betetzeko behar den materiala eman dakien ere. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 22. artikulua honela dio: “Prebentzio-politika gauzatzeko, enpresaburuek eta langileek parte hartuko dute, ordezkariak handieneko enpresaburuen eta sindikatuen erakunde bidez.

Arau bereko 14. artikulua, berriz, honako hau ezartzen du: “Langileek eskubidea dute laneko segurtasun eta osasun-arloan benetako babesa izateko” eta “enpresaburuak bere zerbitzuan dauden langileen segurtasuna eta osasuna babestu beharko ditu, lanarekin zerikusia duten alde guztietan”. Prebentzio politikak Nafarroan gauzatzeko, egokitzat jo da sindikatu nagusiek laneko ezbehar-tasaren kontra borrokatzeko dauzkaten bitartekoak indartzea, erakunde horiek Nafarroako enpresa gehienetara iristeko gaitasuna dutelako beren ekintza sindikalaren bitartez eta, hartara, ordezkariak handieneko sindikatuak derrigorrez erabili beharra dute beren ordezkagarritasunagatik ematen zaien dirulaguntzaren portzentaje bat laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ekintza berariazkoak gauzatzeko.

Horregatik egokitzat jotzen da foru agindu bat onestea haren bitartez aldatzeko 26E/2017 Foru Agindua, ekainaren 16koa, Garapen Ekonomikorako kontseilariak emana, zeinaren bidez ezartzen baita sindikatuei beren jardura arruntak gauzatzeko ematen zaien dirulaguntzaren araubidea Nafarroan lortutako ordezkari kopuruaren arabera.

c) Arauaren helburuak.

Arau-proiektuaren xede nagusia da aitortzea eta bermatzea sindikatu nagusiek duten eginkizuna laneko arriskuen prebentzioan, diruz lagunduz arlo horretan eginiko ekintzak.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik edo ez-erregulatzailerik.

Arau aldaketa honen ordez, laguntzetarako deialdi bat onets liteke lan arriskuen prebentzioari loturiko ekintzak egiteko Nafarroan kokaturiko enpresa eta lantokietan. Hala ere, egin asmo den arau-aldaketa hau administrazioa arintzeko eta sinplifikatzeko tresna bat da, baliatu nahi duelako laguntzetarako jada dagoen deialdi bat, sindikatuei zuzendurikoa eta laguntzak ordezkaritasunaren arabera banatzen dituen, bermatze aldera ezen ordezkaritzarik handiena duten sindikatuek prebentzioko halako ekintzak egiteko baliatzen dituztela gutxienez ere laguntzen parte bat.